



2025eko Amara Berriko sanjoanak.

Musika eta dantza; Amara Berrin badakite nola piztu sugarra

Hilaren 17an abiatuko dituzte aurten Amara Berriko sanjoanak, eta suaren piztearekin amaituko dituzte, kantu eta dantza. Javier Sampedro Ikasbide Kultur Elkarteko kideak xehetasun guztiak eman ditu, auzoan udari emango dioten ongietorri bereziaren inguruan.

📍 Nagore Garmendia Artano
📷 Maitane Aldanondo Gabilondo

Udaren etorrerarekin batera, neguko hotzak sutan erretzeko unea iritsi da, eta hori giro «intimo eta familiarrean» egiten dute

Amara Berrin, Javier Sampedro Ikasbide Kultur Elkarteko kidearen hitzetan. Ikasbide Kultur Elkarteko batzarrak antolatzen ditu sanjoanak auzoan,

urtero, bertako gazteen laguntzaz. Izan ere, egitarauko jarduera jakin batzuk, auzoko elkarte batzuek kudeatzen dituzte; gazte asanbladak, haurtxokoak edota Berritsu Euskara Elkarateak. Hala, adin desberdinetako auzotarrak daude antolakuntzan inplikaturak, eta publiko guztietarako jaiak ondu dituzte.

Sampedrok adierazi duenez, bazkari herrikoiak dira jende gehien mugitzen dutenak, eta musika dagoen leku guztietan dago gazteria; izan ere, txaranga eta karro poteoa ez dira faltako aurten ere ez, uda goxo hasteko.

Suari dantza

Hilaren 17an hasiko dira aurtengo sanjoanak auzoan; izan ere, kaleetan zehar kantuan ibiliko dira amaraberriarrak, Amara Kantuzen eskutik, tabernaz taberna. Horrela ematen zaiolako ongietorri on bat udari; kantuan. Jai ofizialak, ordea, hilaren 19an hasiko dira, ostiralarekin, eta igandera arte luzatuko dira, asteburu mugitu bat pasatuz. Hala ere, San Joan bezpera izango da, urtero bezala, gaurik bereziena.

Ekainaren 23ko iluntzea nabarmendu nahi izan du Sampedrok; aurreko urteetan egindakoari leial, ez dute ezer berririk antolatu nahi izan. Hala, arratsaldean, dantza entseguak egiten dituzte gerora suaren inguruan dantza egin nahi duten auzotarrek, txistulariak pasieran dabiltzan bitartean, eta sua piztu baino lehen egiten diete dantzariak erakustaldi epel eta udatiarra, gainontzeko auzotarrei. ●

UDA KO IKASTAR OAK

MARIKULA
IREKITA

Urrats

euskaltegia

www.urrats.eus 943-46 55 93 Karlos I.a, 10 - Donostia



ASTEAZKENA 17

19:00

Auzotik kantuan, Amara Kantuzen eskutik.

OSTIRALA 19

16:30

Amarako Konpartsako erraldoiak, buruhandiak eta txistulariak; Amara Berri Salaberria.

Erraldoiak, buruhandiak eta dultzaineroak; Ikasbide ikastolatik.

17:30

Erraldioen, buruhandien, txistularien eta dultzaineroen konpartsen batura Amara Kantuzekin, Irun plazatik, Probestu plazaraino.

18:00

Futbitoko Final Fourra, Amara Berri Ferrerrias ikastetxean.

Txokolate jana eta umeentzako jolasak El Saloncitoren eskutik, Probestu plazan.

19:00

Txupinazoa eta elkarteko pin entrega.

19:15

Txabol Sotoaren irekiera.

20:00

Ilargi txaranga, Amara Berri Ferrerriasetik.

20:00-22:00

Afari herrikoia.

21:30

Futbito Txapelketako sari banaketa.

21:45

Kontzertua: Talka.

22:45

Zezensuzkoa.

23:00

Kontzertua: Txamakos.

LARUNBATA 20

09:00

Diana, auzotik.

11:00

Amarako Konpartsako buruhandiak, erraldoiak eta trikitalariak auzoan zehar, Probestu plazatik.

12:00

Dardo txapelketa Tick-Tack tabernan.

12:30

Toka txapelketa haur eta helduentzako, Probestu plazan.

13:00

Bertan egindako paella txapelketa (gehienez, hamalau).

14:00

Bazkari herrikoia.

16:30

Mus txapelketa (lau errege, hiru ustel partida bakoitza).

17:00

Ministro pisto antzezlan, Txintxeta, Txorroskilo eta Borragomaren eskutik.

17:00-19:00

Amara Haurtxokoa eta Gaztelekua, Ikasbide jaietan.

17:30

Karro poteoa auzoan zehar.

20:00-22:00

Afari herrikoia.

20:30-21:30

Umeentzako disko festa, Oihan Vegarekin.

22:30

Zezensuzkoa.

22:40-1:00

Gazteentzako disko festa, Oihan Vegarekin.

IGANDEA 21

09:30

Diana auzotik.

11:00

Ikasbide Elkarteko dantzarien emanaldia, txistulariekin.

12:00

Haur jolasak, Saloncitoren eskutik.

13:00

Etzetik ekarritako patata tortilla txapelketa.

14:00

Bazkari herrikoia, Amara Berriko Gazte Asanbladaren eskutik.

16:00

Euskal musika herrikoia, Amara Kantuzen eskutik.

3x3 futbol txapelketa (16 urte azpitik).

18:00

Sari banaketa.

ASTEARTEA 23

19:00

Sorgin jaitsiera, Ilunkitik.

19:30

San Joan suaren korua auzoko kaleetan zehar eta sorgin jaitsiera, Probestu plazatik.

22:00

San Joan Sua, Gaskako aparkalekuan.

22:45

Zezensuzkoa.